



Altxatu
Altxatu
Gor, 2013

Punk-rock doinu bihurriak

IRUNBERRIKO (Nafarroa) hiru gazte, Iker Ariz, Ibai Osinaga eta Julen Abaurrea, dira Altxatu taldeko partaideak. Oso gazteak dira, 14-15 urte besterik ez baitituzte, baina jadanik disko bat kalean dute.

Punk-rock doinuak jotzen dituzte, gitarra, baxua, bateria eta ahotsak baliatuz. The Ramones, The Clash, Hertzainak eta 80ko hamarkadako euskal rock erradikala deitzen den mugimenduko taldeak atsegin dituztela nabarmena da.

Doinu indartsua gauzatu dute, ozen entzuteko aproposa. Diskoa ederki grabatuta dago eta ekoizpena ere ongi burututa dago. Disko osoa aise entzuten ahal da, eta kantuek entzuten ditugunean burua oharkabean mugitzen hasten zaigu, kantuen erritmor.

Altxatukoek beren kezka eta ezinegona erraz transmititzen dizkigute. Hitzetan gai politikoak eta sozialak landu dituzte. Besteak beste, Euskal Herriaren independentziaz, krisiaz, arrazakeriaz, burua altxatzeko beharraz eta borrokatzeko grinaz mintzo dira.

Hamar kantu bildu dituzte beren lehen diskora. Taldeak euskaraz kantatzen du, baina *No debes de luchar* kantuan gaztelania erabili dute, eta *The Future is Unwritten* kantuan, berriz, ingelesa. Azken kantu hori The Clash taldeko Joe Strummerren testu bati doinua jarriz sortu dute.

Halaber, haien bizilaguna den Josetxo Goia-Arriben saxofoi jotzaile eta konpositoreak Irunberri goratzeko konposatu zuen Irunberri-Lumbier kantua ere grabatu dute, eta The Specials talde ingelesaren *You're Wondering Now* kantua euskaratu egin dute —*Galdezka ari zara* izenburua jarri diote—.

Hamar kantu horiek grabatu ez ezik, ikus-entzuzko lan bat ere osatu dute, bideo klip bat, *Musika zainetan* izenburuko kantuz. Leihotikan taldeko Aitor Remon bideo kliparen filmaketaz arduratu da.

Kantuek erraztasunez, segurtasun handiz eta batere lotsarik gabe jotzen dituzte. Hain gazteak



direnik ez du ematen. Eta gezurra badirudi ere, eskarmentua badute, hainbat jendaurreko emanaldi egin baitituzte jadanik, Nafarroan gehienak. Kantuek egiten badakitela eta beren lokalean lan handia egin dutela nabarmena da. Melodia politik jotzen dituzte, eta kantuei freskotasuna, zintzotasuna eta sinesgarritasuna darie.

Ikerrek, Ibaik eta Julenek Altxatu taldea 2010ean sortu zuten. Hasieran jolas baten gisan hasi ziren, baina, agertokiaren gainean jotzen hastearrekin batera, taldean aritzea serioago eta ganora handiagoarekin hartu zuten.

Javier Etxeberria Vendetta taldeko gitarra jotzaile eta abeslaria ezagutu ondoren, lehenbiziko diskoa harekin grabatzea erabaki zuten. Etxeberriaren beraren etxean grabatu zuten, eta Gor diskoetxeari lan txukuna iruditu zitazaien, Altxatu taldearen lehen diskoa bere zigilupean kaleratu du aipatu diskoetxeak.

Argi dago orain musika jolas bat baino gehiago dela Altxatu taldeko hiru kideentzat, musika bihotzean sentitzen dutela. “Musika bizitzan, musika zainetan”, *Musika zainetan* kantuan esaten duten bezala. ■

Joxi Ubeda

